


Ordaindu gabeko etxeko lanaren balioa Euskal AEko BPGren % 27,7 izan da 2018an

Nahiz eta azken 25 urteetan gizonen ekarpena ehuneko 12 puntu handitu den, emakumeek, 2018an, bikoiztu egiten dute oraindik guztizkoaren aldean bere gain hartzen duten ehunekoa

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko etxeko ekoizpenaren balioa 21.296 milioi eurokoa izan zen 2018an, hau da, urte horretako Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 27,7.

EUSTATEk Etxeko Lanaren Kontu Satelitearen seigarren edizioa egin du, bost urtean behin egiten dena. Horren helburu nagusia da familia-etxeek egindako ekoizpen-jardueren irudi orokorra ematea eta jarduera horiek ekarritako balio ekonomikoa zenbatestea. Balio ekonomiko horren zati handiena ez dago jasota Barne Produktu Gordinaren kalkuluetan. Ekoizpen-jarduera nagusiak honako hauek dira: ostatua, zaintza eta hezkuntza ematea; janaria ematea, eta arroparekin eta boluntariotzarekin lotutako zereginak.



Hogeita bost urte horietako datuak aztertzean, nabarmentzekoa da ordaindu gabeko etxeko lanaren balioak BPGn duen partaidetza-ehunekoa behera egin duela 1993ko % 46,2tik 2018ko % 27,7ra, eta urte horretan ezarri da seriearen gutxieneko maila; beste behin ere, agerian geratu da etxeko ekoizpenaren izaera kontraziklikoa, krisialdietan gora egiten baitu, baliabideak merkatuko ekonomiatik etxekora transferitzearen ondorioz, eta oparoaldietan behera egiten baitu.

Ordaindu gabeko etxeko lanaren balioaren eta BPGren arteko erlazioa (mila euro)


	1993	1998	2003	2008	2013	2018
1.- Ordaindu gabeko etxeko lanak	11.741.137	13.392.118	15.637.783	20.001.264	21.342.098	21.296.076
2.- BPG merkatu-prezioan	25.032.353	36.069.234	49.677.867	68.575.133	64.923.009	76.888.235
3.-Etxeko produkzioa/BPG (%)	46,9	37,1	31,5	29,2	32,9	27,7

Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

2018. urtean, **funtzioen arabera banaketak** ez du alde handirik izan 2013. urtearekiko, zeren guztizkotik proportzio handiena biltzen duten funtzioen garrantzi-ordenari eusten baitzaio: lehenik eta behin, Janaria (% 40,4) eta Ostatua (% 29,6) ematera bideratutako lanak daude; ondoren, Zaintzak eta hezkuntza ematea (% 22,5) eta, azkenik, Arropa eta beste batzuk (% 7,5).

Hala ere, zaintzak eta hezkuntza ematearen funtzioa gero eta pisu handiagoa hartzen ari da, 2008an % 15,5 izatetik 2018an % 22,5 izatera igaro baita, jatekoa ematearen funtzioaren kaltetan, zeina 2008an % 44,7 izatetik 2018an % 40,4 izatera igaro baita. Datu horiek erakusten dute biztanleria-piramide zahartuago bat, zeinek eskatzen dituen zaintza gehiago, familia-etxeek neurri handiagoan betetzen dituztenak.

Ordaindu gabeko etxeko lanaren balioaren banaketa eginkizunen arabera. Euskal AE. 2018



Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Emakumeek egindako etxeko lana BPGren % 18,6 dateke, gizonek egindakoaren pisu ekonomikoa bikoiztuz (% 9,1)

Ordaindu gabeko etxeko lanen balioaren **sexuaren arabera banaketari** dagokionez, eta ordaindutako merkatuan gertatzen den bezala, etxeko lanak batez ere emakumeenak dira. Etxeko lanak etxe barruan egiten direnean, % 67,2 emakumeek egiten dituzte. Gainera, nabarmentzekoa da aztertutako jarduera guztietan emakumeek gizonek baino pisu handiagoa dutela. Funtzioen arabera, Ostatuan eta etxebizitzan (% 38,0) eta Zaintzak eta hezkuntza ematean (% 34,7) nabarmentzen da gizonek ekarpen handiagoa egin dutela 2018an; ondoren, oso hurbil, Janaria emateko funtzioa dago (% 30,9), eta hori non gutxien parte hartu duten Arropa eta bestelakoak ematea da (% 17,4).


Etxeko ekoizpenaren sexuaren arabera banaketa. Euskal AE. (%)

	2018		2013	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ostatua ematea	38,0	62,0	37,6	62,4
Jaten ematea	30,9	69,1	31,2	68,8
Zaintzea eta heziketa ematea	34,7	65,3	35,7	64,3
Arropa eta bestelakoak ematea	17,4	82,6	22,9	77,1
Etxeko produkzioa guztira	32,8	67,2	33,3	66,7

Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Denbora luzeagotik begiratuta, azken 25 urteetako bilakaerak agerian uzten du ezen, gizonek etxeko lanetan duten partaidetza 12 puntu handitu bada ere, emakumeek oraindik ere bikoiztu egiten dutela, 2018an, ordaindu gabeko etxeko lan guztiarekiko hartzen duten ehunekoa.

Etxeko lanaren banaketa sexuaren arabera Euskal AEn



Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Ordaindu gabeko etxeko lanen **lurraldeen araberako banaketa** bakoitzaren biztanleriaren pisuari lotua dago: Arabak etxeko produkzioaren % 15,4 sortzen du, Bizkaiak % 52,6 eta Gipuzkoak gainerako % 32,0a.

Era berean, etxeko lanak sexuaren arabera banatzeari dagokionez, antzekoa da hiru lurraldeetan; izan ere, hiru lurraldeetan gizonek ordaindu gabeko etxeko jardueretan duten partaidetzaren % 33 inguru ekartzen dute.

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62